

Beste sari bat LEINN eta Mondragon Team Academy-rentzat.

2017/03/23

Mondragon Team Academy (MTA) gure nazioarteko sareak Espainiako Mentoring Elkartearen (AMCES) eskutik "Mentor Honoris" saria eta errekonozimendua lortu berri du. Saria Felix Lozanok jaso zuen Caixa Forum-en, bera Teamlabs-eko fundatzailea da eta MTA World Board-eko kidea izateaz gain Madrilgo laborategiko talde entrenatzaileetako bat da.

Mondragon Team Academy (MTA) milla pertsonatik gora dituen nazioarteko talde ekintzaile sarea da. MTAK irakaskuntza radikalean oinarritutako programa desberdinak ditu, beraien artean LEINN gradua dagoelarik. Lehenengo egunetik ikaslean beren enpresa sortzen dute talde moduan, eta enpresa hau tresna bezala erabilia sortzen, amesten, lideratzen eta beren aldaketarako eta impaktu sozialerako ahalmena aurkitzen ikasten dute munduan zehar bidaiatuz eta proiektuak garatuz.

Mondragon Team Academy 2008an sortu zen Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza fakultatearen eskutik, Finlandiako Team Academy-rekin kolaborazio estuan eta gaur egun 8 laborategi ditu 3 kontinenteetan zehar: Bidasoa, Oñati eta Bilbon (Mondragon Unibertsitatean campusak); Madril eta Bartzelonan (Teamlabs-ek lideratuta); Balentzian (Florida Unibertsitateak lideratuta); Queretaron (Mondragon Mexicok lideratuta); eta Shangain (MTA China-ren eskutik).

